2012-IX-21
Número **379.** zenbakia

ELA
EUSKAL SINDIKATUA
www.ela-sindikatua.org

astekaria

# EDITORIALA

## Irailaren 26a gertu

**Hedabide gehienek ez gaituzte lagunen zerrendaren artean. Aldiz, hedabide handi-boteretsuak, beren zerbitzarien interesak ondo babestuz, sindikatuok eta eragile sozialek ordezkatzen duguna eta planteatzen ditugun alternatibak ezkutatzen saiatzen dira, behin eta berriz. Ezer berririk ez ezustean harrapatzeko, finean ikasiak gaude aspalditik gure proposamenak eta alternatibak gure jendearen artean zabaltzeko eta hedatzeko balio handiko tresna dugula: gure jendearekiko gertutasuna.**

**Dirudi herritarrok bizi dugun egoera larriak ez duela inporta edota lehentasunen artean azken mailatan kokatzen dela. Hauteskunde politikoak omen dira garrantzizkoena, alderdien esanak du lehentasuna, esateko horien atzean konpromisorik gabeko hitz jarioa nagusitzen bada ere. Milaka eta milaka pertsonak, herritarrak, gizartea pobreziara bultzatu duten honetan, zein alderdi politiko, nor konprometitu da orain arte eginiko politika basatiak atzera botako dituela esanez? Hitzaz gain, ekintzetan dago sinesgarritasuna eta klase politikoa eta gizartearen arteko lubakia handitzen doa. Hor ez dago gertutasunik, distantzia handia baizik.**

**Irailaren 26ko grebaren bezperatan gaudela, balio handia eman behar diogu langileon artean gertutasunak eman digun zilegitasunari. Haren arazoak eta nire arazoak gure arazoa izan dira, aurpegia ematen jakin dugu eta ez dugu etsitzen. Hedabideek mobilizazioa eta greba ikusezina bihurtu nahi badute ere, geroz eta atxikimendu eta sostengu gehiago jasotzen ari da grebaren deialdia. Grebak hedabideena ez, gizartearen babesa behar du arrakastatsua izateko. Azken ahaleginak geratzen zaizkigu greba deiadarra enpresatan eta kale guztietan entzun dadin. Horri eman behar diogu lehentasun osoa, gure jendea baita lehentasun osoa merezi duena. Asko gara, geroz eta gehiago gara irailaren 26an kalean mobilizaturik elkar gertu egongo garenak.**




**Dena prest ELA, LAB, ESK, STEE-EILAS, EHNE, Hiru, CGT eta CNT sindikatuek eta hamarnaka gizarte eragilek irailaren 26rako deitutako greba orokorrerako**

# I-26: GELDITUKO DITUGU...

Irailak 19, asteazkena. Irailaren 26ko greba orokorra deitzen eta babesten duten sindikatu eta gizarte eragileetako ordezkariak Eusko Jaurlaritzak Bilbon duen egoitzaren aurrean elkarretaratu dira. Gainean adreiluak, porlana eta eraikuntzarako materiala daramate. Eta mezu argi bat: *murrizketen aurkako harresi bat eraikitzera goaz. Irailak 26 greba orokorra.* Hitzetatik ekintzetara. Apurka-apurka, elkarlanean, kontzentraziora bildutako lagunek harresia eraikitzeari ekin diote. Baita lortu ere.

Iragan asteazkenekoa ekintza sinbolikoa izan zen. Greba orokorra prestatzeko Hego Euskal Herri osoan antolatu diren hamaika ekintzetako bat. Baina adierazpen berezia izan zuen. Erresistentziaren sinboloa, aurrez-aurre izango gaituztenaren seinalea. Bakarka ez gara ezer. Klase borroka honetan parez-pare dugun arerioa indartsua da oso. Horregatik guztion beharra daukagu egoera iraultzeko. Adreilu bakarrarekin nekez egin liteke ezer; adreilu askorekin harresi sendo eta indartsua egin liteke.

Harresi horren eraikuntzan sendotzeko ekimen ugari antolatu dira azkenaldian. Atal sindikalekin egindako ehunka bilerak; enpresetako asanblada informatiboak, milaka delegatuk parte hartu duten bilerak; eskualde ezberdinetan antolatutako ekimenak; egoeraren nondik norakoa azaltzen duten ehunka-milaka buletin eta orri informatiboen banaketa; industriaguneetan, kaleetan eta edozein bazterretan kokatutako kartelak; auto karabanak; prentsaurreko eta agerraldi publikoak; sare sozialen bidez zabaldu den informazio kanpaina; hiriburuetan egindako manifestazioak...

Lan izugarri horri irailaren 26an eman behar diogu jarraipena. Lantokiak hustu eta kaleak bete. Altu eta ozen entzun dadila nazka-nazka eginda gaudela. Argi gelditu dadila agintari-politiko, kapital eta patronalaren begien aurrean gurekin jai daukatela. Harresia eraikitzen ari gara, eta gero eta handiagoa da.

*"Estamos levantando un muro contra los recortes. Nos van a tener enfrente: les vamos a parar y obligar a cambiar de políticas"*




# ... Y LES HAREMOS FRENTE

El viernes 21 de septiembre los sindicatos y organizaciones sociales convocantes de la huelga general presentaron los numerosos apoyos y adhesiones que ha recibido la convocatoria. Los últimos días se han celebrado un sinfín de asambleas y reuniones en los centros de trabajo con el fin de manifestar el respaldo de los trabajadores y trabajadoras a las razones de dicha convocatoria, así como para formalizar la decisión de apoyo a la huelga. Patxi Agirrezabala, responsable de comunicación, destaca el amplio respaldo dado hasta ahora por la clase trabajadora.

"En una primera recogida de datos en torno a las asambleas y decisiones que se vienen adoptando en empresas y sectores, a día de esta presentación, la huelga general cuenta ya con la adhesión de cientos de empresas de Comité y Juntas de Personal. Respecto del sector público, son abundantes las adhesiones adjuntadas por Comités de Empresa y Juntas de Personal, además de Secciones Sindicales de los diferentes ámbitos de las Administraciones públicas".

Agirrezabala destaca que a falta de pocos días para la huelga general son crecientes los apoyos que dicha convocatoria está recogiendo en todos los ámbitos geográficos y sectoriales. "Además de los apoyos presentados, hay que destacar también la adhesión de innumerables pequeñas y medianas empresas que van aportando su esfuerzo para que la huelga general del 26 de septiembre sea todo un éxito".

"Si logramos movilizar a todos aquellos que nos han dado su apoyo les haremos frente y los pararemos".



## IRAILAK 26: GREBA ETA MOBILIZAZIO EGUNA

# GREBA EGUNA JARRAITZEKO GIDA LABURRA, HIRIBURUZ HIRIBURU




**IRUÑEA:** Como en huelgas anteriores, las columnas de trabajadores/as saldrán a las 9:30 desde el cruce de la Avenida San Jorge con Avenida Navarra (rotonda). Y a las 11:00, de la plaza Ezkaba, en La Txantrea; en Atarrabia-Villaba, desde el ayuntamiento; y en Barañain, desde la Plaza de los Tilos. A las 12:00 del mediodía tendrá lugar el acto central de la mañana, en la Plaza del Castillo. La movilización continúa por la tarde. La manifestación junto a los organismos sociales dará inicio a las 19:00 horas desde el Parque Antoniutti.




**BILBAO:** La primera manifestación tendrá lugar a las 9:15. Partirá del Sagrado Corazón y recorrerá las calles de Bilbao. A las 11:45, las columnas de trabajadores/as partirán desde Deusto (lehendakari Agirre, 11); Alameda Rekalde 1; la gasolinera de Juan de Garay, y el Ayuntamiento, respectivamente. A las 12.30 del mediodía tendrá lugar el acto central de la mañana. Una manifestación partirá de la Plaza Moyúa y concluirá en el Sagrado Corazón, donde tomará la palabra el secretario general, Adolfo Muñoz, *Txiki*. La movilización continúa por la tarde. La manifestación junto a los organismos sociales dará inicio a las 18:00 horas desde la Plaza Moyúa hasta el Ayuntamiento.




**DONOSTIA:** La primera manifestación del día tendrá lugar a las 9:30 de la mañana y partirá de la calle Pío XII. A las 11:45 las marchas de trabajadores/as saldrán desde Anoeta (Parada Topo), Sagües, y del Antigüo (Super Amara). A las 12.30 del mediodía tendrá lugar el acto central de la mañana. Una manifestación partirá de la Plaza del Buen Pastor, para concluir, con un mitin, en el Boulevard. La movilización continúa por la tarde. La manifestación junto a los organismos sociales dará comienzo a las 18:00 horas desde el Boulevard donostiarra.




**VITORIA-GASTEIZ:** A las 10:00 de la mañana comenzarán las marchas por la ciudad. La primera partirá desde el Gobierno vasco. La segunda, desde el Boulevard, y la tercera, desde el Corte Inglés. Todas estas columnas de trabajadores/as confluirán en la Plaza Bilbao, donde a las 12 del mediodía dará inicio la manifestación estrella de la jornada de la mañana, que concluirá en la Plaza de la Virgen Blanca, con un mitin. La manifestación junto a los organismos sociales dará inicio a las 17:30 horas, y discurrirá, como la del mediodía, entre la Plaza Bilbao y la Virgen Blanca.

## IRAILAK 26: GREBA ETA MOBILIZAZIO EGUNA

# TÚ ELIGES: CON LOS DE ARRIBA O CON LOS DE ABAJO



## A LOS TRABAJADORES DEL PAÍS VASCO Y NAVARRA

Varios sindicatos del País Vasco y Navarra han convocado una huelga general para el 26 de septiembre. Una convocatoria inútil que, como las anteriores, sólo servirá para que las cosas empeoren.

Es verdad que la actual coyuntura económica no es la que quisiéramos. La crisis nos afecta a todos, y, por lo tanto, entre todos tenemos que buscar una salida. En esta situación no parece que una huelga sea la mejor opción para solucionar la crisis. No tiene ningún sentido plantear una *solución* que lo único que hace es parar nuestra economía, sin olvidar la división y crispación que crea en la sociedad.

En una situación como la que padecemos es más necesario que nunca mirar hacia cada uno e intentar buscar soluciones en común. Aunque las medidas adoptadas en los últimos meses hayan sido duras, es justo reconocer que son necesarias, cuando no imprescindibles. Es evidente que hemos vivido por encima de nuestras posibilidades y que es necesario adecuarse a la nueva realidad.

Tampoco podemos obviar el carácter internacional de la crisis. Vivimos en un mundo globalizado, en el que si queremos sobrevivir tenemos que amoldarnos y ajustar salarios y jornada. Las condiciones y derechos laborales deben ser adaptados a la actual coyuntura. Es posible que en un futuro tengamos que renunciar a alguno de los privilegios que hemos tenido hasta ahora, pero si no somos capaces de competir en esta economía globalizada las consecuencias pueden ser terribles.

Tenemos que arrimar el hombro. El Rey don Juan Carlos lo acaba de resumir perfectamente en su última aparición pública. "Es un momento decisivo para asegurar o arruinar el bienestar. En estas circunstancias, lo peor que podemos hacer es dividir fuerzas, alentar disensiones, perseguir quimeras, ahondar heridas. No son estos tiempos buenos para escudriñar en las esencias ni para debatir si son galgos o podencos quienes amenazan nuestro modelo de convivencia".

Por todo ello, esperemos que el próximo 26 de septiembre se imponga la normalidad y que nuestra sociedad reconozca el esfuerzo que estamos haciendo para salir de la crisis. Es la hora de trabajar entre todos, sin convocatorias inútiles que dividen a la sociedad.

***Nota: El texto de arriba es inventado. Sus argumentaciones, no. Se las podemos leer y escuchar todos los días a los amigos de la fotografía de la izquierda.***

# POBREZIARA ERAMATEN GAITUZTEN MURRIZKETA BIDEGABEEN AURKA. 26AN, GREBA OROKORRA



Rajoyren Gobernuak onetsi berri dituen neurriak azken hamarkadetako gizarte-murrizketarik handiena izan dira.

Neurri horietan Europako Kontseiluak maiatzean onetsitako gomendioak jasotzen dira, euro-taldearen baldintza baitira Gobernu espainiarrak bankarentzako 100.000 milioiko euroko mailegua hartu ahal izan dezan. Espekulatzaileentzako opari hori finantzatzearren, beharrezkoa du Gobernuak, besteak beste, gizarte-murrizketak egitea, herri-langileen soldata jaistea, eta BEZa igotzea.

Lan- eta gizarte-eskubideen konturako arpilatze antolatu horrek gizarte osoa bultzatuko du pobreziarantz. Onetsitako neurrien artean, honako hauek nabarmentzen dira:

- BEZa hiru puntutan igotzea, %18tik 21era, orokorra; eta %8tik 10era, murriztua.
- Langabezia-prestazioen murrizketa.
- Menpeko pertsonei arreta emateko sisteman eskubide-murrizketa.
- Sektore publikoan aparteko ordainsari bat kentzea (eroste-ahalmenaren %7ko galeraren parekoa).
- Denda-ordutegiak erabat liberalizatzea.
- Enpresen kotizazioak jaistea.

**Herritarrak jo-puntuan.** Eta hori hasiera besterik ez da, dagoeneko iragarrita dauzkaten beste neurri batzuek pobrezia, langabezia eta bazterkeria areagotuko dituzte (pentsioak, aparteko sariak, osasuna...) Jo-puntuan daude langileak, haien soldatak jaisteko; langabeak, prestazioak gutxitzeko; herri-langileak, aparteko sariak kentzeko; gaurko eta biharko erretirodunak, pentsioak txikiagotzeko; gazte jendea, prekarietatera kondenatzeko; eta menpeko pertsonak, senide zaintzaileak zigortzeko.

Erasoa orokorra bada ere, badago gutxiengo abantailadun bat salbu geratu dena, ekarpenik handiena egin beharko zutenak, hain zuzen, haiek baitira krisia eragin dutenak: bankariak, espekulatzaileak eta goi-mailako interes ekonomiko eta finantzarioak ordezkatzen dutenak.

**Bestelako aukerak badauzkagu.** Botere faktikoek, beldurrezko eta halabeharrezko mezuak bidaliz, gizartea desmobilizatu nahi dute; baina ELAk bestelako aukerak eskaintzen ditu: hasteko, murrizketa horiek Euskal Herrian ez aplikatzea, eta politika fiskalak eta sozialak zeharo aldatzea. Horrela eginez gero, krisitik ateratzeko bide zuzena aurkituko genuke.

**Gizartearen gaitzespena eta mobilizazioa.** Jakin badakigu, hala ere, ez dela ezer aldatuko, guk horretara behartzen ez baditugu. Botere politikoak, ekonomikoak eta finantzarioak, elkar adituz, langileen eta orokorrean herritarren kontura antolatu duten arpilatze horri erantzun bakarra eman dakioke: gizartearen gaitzespena eta mobilizazioa.

Horregatik bultzatu egiten zaitugu artez parte hartzera sindikatuek eta gizarte-mugimenduek gure Herriko bazter guztietan antolatuko dituzten mobilizazioetan, eta batez ere irailaren 26ko ekintzarik handienean, Hego Euskal Herriko greba orokorrean.

Erakutsi zure sumindura eta haserrea! Denon artean geldiaraziko ditugu!

*"Nada va a cambiar si no les obligamos a ello. Sólo cabe una respuesta a este saqueo a la clase trabajadora y a la ciudadanía en general, que cuenta con la connivencia del poder político, económico y financiero: el rechazo social y la movilización"*

Las movilizaciones para impedir el cierre de la empresa se intensificarán los próximos días

# LA PLANTILLA DE FORMICA, EN HUELGA INDEFINIDA, SE ENCIERRA EN DEFENSA DE SUS PUESTOS DE TRABAJO



*Parte de la plantilla de Formica entrando al encierro el miércoles 19 de septiembre.*

La plantilla de Formica inició el lunes 17 de septiembre un encierro en defensa de sus puestos de trabajo. Estos trabajadores/as se encuentran en huelga indefinida, después que el pasado día 10 la empresa presentara un ERE de extinción que afecta a 190 trabajadores/as de los 205 que componen la plantilla. Este ERE significa el cierre total de las instalaciones de producción; tan solo permanecerían unas 14 personas trabajando, la mayoría directivos, con el único objetivo de seguir beneficiándose de las ventajas fiscales de mantener el domicilio social en Galdakao. José Luis Vélez, presidente del comité de empresa, adelanta el nuevo calendario de movilizaciones, así como la situación actual de la plantilla.

**-Tras la presentación del ERE de extinción, el pasado 10 de septiembre, la plantilla tiene más claro que nunca que la lucha es el único camino. ¿Qué es lo más destacable del nuevo calendario de movilizaciones?**

-El lunes iniciamos un encierro indefinido en las instalaciones de la empresa. Grupos de 8 ó 10 trabajadores/as permanecerán en el interior de la misma 48 horas. Posteriormente, serán relevados por otro grupo, y así sucesivamente y por un periodo indefinido.

Esta acción forma parte de un intenso y completo calendario de movilizaciones cuyo objetivo es impedir el cierre de la empresa y defender los puestos de trabajo y el futuro de cerca de 200 familias.

El jueves 20, realizamos una sentada ante el Gobierno vasco. El 21, nos desplazamos a Madrid y nos concentramos ante la embajada de Nueva Zelanda, matriz de la multinacional. El sábado 22, tomamos parte activa en la manifestación convocada en Bilbao, previa a la huelga general.

Esta misma semana, en fecha aún sin determinar, realizaremos una sentada en el Guggenheim.

El martes 25 de septiembre está prevista una reunión del comité de empresa europeo de Fletcher Building, donde denunciaremos el intento de cierre de Formica y recabaremos el apoyo del resto de factorías del grupo en Europa. Y el día 26, como no puede ser de otra manera, ahí estaremos, en la huelga general.

**-Una huelga contra los recortes a nuestros derechos. Algo que conocéis de primera mano.**

-Así es. No existen causas que justifiquen la decisión de cerrar Formica, y está claro que la última reforma laboral está hecha para destruir empleo y abaratar las indemnizaciones. Estamos sufriendo de manera brutal la reforma laboral, con unas autoridades laborales que hacen la lectura más rancia de la misma. Es por ello que, sin abandonar las vías jurídicas, estamos convencidos de que la lucha, la huelga y la movilización continua es el camino para conseguir mantener nuestros puestos de trabajo.

**-Sois muy críticos con la actuación del Departamento de Trabajo.**

-Así es. La dirección de la empresa está actuando de mala fe al no presentar la documentación necesaria y fundamental para dilucidar el ERE. Entendemos que hasta que lo haga no debería iniciarse el periodo de consultas, ya que deja a los trabajadores/as en clara indefensión; sin embargo, el Departamento de Trabajo del Gobierno vasco ha dado la espalda a la plantilla y se ha alineado con quienes nos quieren dejar en la calle.

Como poco nos parece paradójica esta actuación cuando desde el propio Departamento de Industria y la Diputación se reconoce que la decisión de cierre es de la multinacional y han decidido enviarle un informe pidiéndole que de marcha atrás.

**-Para finalizar. Y tras estas movilizaciones, ¿qué?**

-Le seguirán otras. No hay razones que justifiquen la decisión de cerrar la planta. Por eso, vamos a luchar hasta el final. Aquí trabajamos. Aquí vivimos. Nos van a tener que echar porque nosotros no nos vamos a ir.

## Laburrak

### ● La plantilla de Laminaciones Arregui se concentra ante los Juzgados de Bilbao en protesta por los despidos

El martes 18 de septiembre se celebró en el Tribunal Superior de Justicia del País Vasco el jucio contra los 178 despidos de la empresa Laminaciones Arregui, pertenecientes al grupo Celsa. Coincidiendo con el inicio de la vista las y los trabajadores de la empresa –en huelga indefinida desde hace cuatro meses– se concentraron frente a los juzgados. A la protesta también se sumaron las y los compañeros de Nervacero, empresa perteneciente al Grupo Celsa.

### ● Concentración frente a la sede de Eudel en contra de los recortes

Un centenar de trabajadores/as se concentraron el 20 de septiembre ante la sede de Eudel en Bilbao en protesta por los recortes. Los representantes de ELA entregaron una carta a la dirección de Eudel exigiendo que no se apliquen las medidas aprobadas por el gobierno de Rajoy y que apuesten por otras políticas, por otro modelo de país y por la no aplicación de los recortes que vienen impuestos desde Madrid. Además, hicieron un llamamiento a participar en la huelga general del 26-S.




www.ela-sindikatua.org

Franqueo concertado
nº 08/207

ELA astekaria

Barrainkua 13, Bilbao
Tel. 94 403 77 00
Fax 94 403 77 66

Dep. legal BI-199-00

www.ela-sindikatua.org